


Astigarraga aspalditik leku egokia izan da bizitzeko. **Txoritokieta** eta **Santiagomendi** talaiak, leku estrategikoak ziren ingurua kontrolatzeko eta Urumeak, **Ergobian** zuen zubia, pasabide egokia erosotasunez ibaia zeharkatzeko (garai batean ibaiak gaur egungo autopista modukoak ziren).



- Hau aprobetxatuz ziur aski, Erdi Aroan (XIII. mendearen erdialdean) **Murgiatarrek** bere jauregia eraiki zuten gaurko Astigarragako lur zati batean.

- Garai hartan bide nagusiena, **Errege-bidea**, Astigarragatik pasatzen zen. Errepide honek Gaztela eta Frantzia lotzen zituen eta Ergobian ibaia zeharkatzen zuen. Donostia bide honetatik urrun gelditzen zen, Andoain, Hernani, Astigarraga, Oiartzun eta Behobiatik pasatzen baitzen.




- Santiagomendiko garapen ekonomikoak itsasoarekin lotura handia izan zuen. Ternua-ra eta Labrador-era joaten ziren arrantzaleek beharrezkoa baitzuten Astigarragan ekoizten zen sagardoa. Edari hau eskorbutoz (C bitaminaren gabezia) ez gaixotzeko eta elikatzeko egokia zen.

- XVII. mendean sagardo produkzioaren krisialdia izan zen eta artoaren iraultza izan zen. Artoa bihurtu zen biztanleen oinarritzko janaria.
Garai hartan gariak esan omen zion artoari: *-Ni naiz belarrik ederrena!*
Eta artoak erantzun omen zion: *-Ni naizen tokian, goserik ez!*

- **1660**an Astigarraga udalerri bihurtu zen. Murgiako biztanleek, 1840arte Murgiako Jaunaren menpean jarraitu zuten bere jabetzako lurretan bizi zirelako. Egoera hau 1840an aldatu zen Murgia eta Ergobia Astigarragako udalerrian integratu zirenean.

- Beraz 1813an, Independentzia gerra garaian Astigarraga herria Santiagomendin kokatzen zen eta gaur egungo beheko zatia Murgiatarren menpean zegoen.

- **1813**ko ekainaren 21ean, frantsesek galdu egin zuten aliatuen aurka Gasteizen, eta Donostiarantz abiatu ziren. Louis Emmanuel Rey jeneral frantsesa Donostian sartu zen, hemen britainiarrei aurre egi- teko. Donostiako bidean Astigarragako zubia zeharkatu zuten.



Aliatuak: Britainiarrez, portugaldarrez eta espainiarrez osatutako ejertzittoa.

- Britainiar ejertzittoa Astigarraga eta inguruetan egon zen kanpatua, Donostiako setioak iraun zuen bitartean. Donostia erretzen zen bitartean, zutik mantentzen ziren etxeetan lapurretak nagusitu ziren. Eraso hauetan ez zuten parte hartu bakarrik barruan zeuden soldaduek, Astigarraga eta inguruetako kanpamenduetan zeudenak ere gehitu baitziren harrapaketa hauetara. Batzuk armarik gabe inguratu ziren, eskuak libre izateko besteak berriz mandoekin. Pasaian zeuden itsasontzi britainiarrak ere inguratu ziren badiara, lapurtutakoa itsasontzietan eramateko.

Handik astebetera, 1813ko irailaren 8an Zubietako Aizpurua baserrian Donostia birstortu eta berreraikitzeke erabakia hartu zuten herritarrek.



- Urte batzuetara, 1840an hain zuzen Santiagomendi, Murgiako populazioa eta Ergobia elkartu ziren, gaur egungo Astigarraga sortzeko. Ez zen udalerria eta Aiztondoko Alkatetza Nagusiarekin bat egin zen.

← Erabakiak Plazetxen hartzen zituzten. ■